



**2019KO URTARRILAREN 11KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemeretzi urtarrilaren hamaikan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Marian Zufiria Apeztegia.

Bere ezin etorria adierazi du Joseba Imanol Aran Barandiaran zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturako onespenera aurkeztzen da 2018ko abenduaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Azertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 116 zbk.dun fakturen zerrenda, EHUN ETA HAMABI MILA SEIEHUN ETA SEI EURO ETA ZENTIMO BAT (112.606,01 €)takoa eta 2019ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.dun zerrenda, BERROGEI EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO (40,80 €)takoa, biak beren espedienteetan daudenak, onartzea erabakitzen da.

**III.- BENEDITARREN FUNDAZIOARI EKARPENAK.-**

Alkateak esaten du Beneditarren Fundazioan udala patronoa dela eta Fundazioaren gastuei aurre egiteko hitzarmen bat izenpetuta dagoela eta udal aurrekontuan horretarako partida jasota dagoela. Eta gaineratzen du horren arabera, eta 2019 ekitaldiari dagokionean, udalak fundazioari hogeita bi mila euroko (22.000 €) diru-ekarpena egiteko proposamena egiten duela.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Beneditarren fundazioari HOGETA BI MILA EUROko (22.000 €) diru-ekarpena egiteko proposamena onartu egiten du.

**IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-**

Antzar Korrikalariak taldeak, 2018ko abenduaren 31n antolatutako San Silbestre lasterketaren antolaketarako egindako diru laguntza eskakizuna ikusita, eta Kiroletako zinegotziaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak diru laguntza hau ematea erabakitzen du:

- Antzar korrikalariak.-



San Silbestre lasterketaren antolaketarako 1.780,90 € ematea.

V.- EUSKARAKO DIRU LAGUNTZAK.-

Euskara eta hezkuntzako zinegotziak egindako proposamenen aurrean Tokiko Gobernu batzarrak honako diru laguntza hauek ematea erabakitzen du:

- Urruña - Ziburuko ikastolaren alde, San Benito Ikastolari diru laguntza.-

Urruña - Ziburuko ikastolen aldeko egindako ekitaldiak direla dela eta, 300 €ko diru laguntza onartzea.

- Motorra eta autoa gidatzeko baimena euskaraz ateratzeko diru laguntza.- 2018. urtean motorra eta autoa gidatzeko baimena euskaraz ateratzeko diru laguntza eskaera 26 lagunek egin dute, eta diru laguntza honetara heltzeko jarritako baldintzak betetzen dituztela baieztatu ondoren, bakoitzari 100 €ko diru laguntza ematea erabakitzen da. Hau honela, bere espedientean dagoen zerrendako eskatzaileei guztira 2.600 €ko diru laguntza ematea erabakitzen da.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamahiru gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

